

ZER DABIL OR? (urrilla)

- Deustu'ko Ikastetxe Nagusia'n Erretore barria:Aita Oraa.
- Aita Santuaren alde otoitz egiteko eskatu dau Ratzinger kardiñalak.
- Bilbao'ri saria emon dautsoe, laterriko uririk osasuntsuena dalako.
- Lendakariaren ustez, Laterriak Euskalerrri'ri eskubi-deak kentzen dautsoz gaur.
- Beroak txangolaraiak ugaritu dauz Bilbao'n.
- "Kilometroak eguna"Gipuzkoa'n:70.000 lagun ikas-tolai laguntzen.
- Bagadad'en España'ko militar bat il dabe.
- Lantegietako arduradun euskaldunak Cuevas'en aurka,Ibarretxe'ren alde.
- EA'k eskari bi: "División Azul"ekoai laguntza kendu eta Franco'ren menpean kaltetuai lagundu.
- Bilbao'k 354.000 biztanle, urtean 211 euri-egun, 15.500 langabe, 108.000 berebil, 1918 udal-langille, 146.000 bizi-leku.

- Amianoak (zikoniak) etorri dira Urdabai'ra.
- Ibarretxe'ren esondapenaren alde %63 eta %81 ere-txi-batzearen alde.
- Bin Laden'ek España'ren aurka ekintzak egingo dauz,au Irak'en aurka dagolako.
- "Naparroa oiñez" ospatzeko,egualdi oso txarra.Irun-berri'ko ikastolako arduradunen ainbeste lan erdi-alpe-rrik.
- Lendakariaren itzaldia Granada'n, Jimenez de Parga ta Felipe Gonzalez'egaz batera. Erritarren aldetik eran-tzun oso txarra artu dau.
- Atutxa'k Lege-Biltzarretik kanpora bialdu dau Itur-gaitz,iru batzarretarako.
- Ibarretxe'k aurkeztu dau Lege-Biltzarrean bere eson-dapena.
- Gonzalo Nardiz il da:Lenengo Jaurlaritzan langin-tza'ko Sailburu.Jaurlaritza aretatik azkenengo jaurkidea izan da.

Olazar'tar Martin'ek

Lekaide-etxeak (Monastegiak) Euskalerrrian

Monastegiak antxiñakoak eta asko izan dira Eus-kalerrria'n. Gure Latxaga'k ondo aztertu dauan lez, gure Kapadozia Trebiño'n izan zan, baiña monastegi askoren lekua izan zan Baldegobia be eta Donemiliane-inguruan be bai.

VIII gizaldian 1000 lekaide-etxe egozan Iberia osoan eta eurretatik 200 euskalerrrian.

Gure monastegirik zarrena ta ospetsuena Okoizta edo Akosta'koa da, au VIII gizaldian bizi-bizi egoan eta Gaztela'ko Fernan Gonzalez sarritan etorten zan etxe orretara.

Monastegi'rik ospetsuenak eta beste asko euren menpean eukezanak oneik dira: Oña, Peña'ko San Juan, Naxera, Donemiliane, Seros'ko Gurutze Deuna, Leire, Iratxe.

Leire'ra VIII gizaldian Kordoba'ko Euliojio etorri zan eta asko goratzen dau lekaide-etxe au, asko ta onak diralako eta liburutegi arrigarria daukelako.

Monastegietatik zabaldu zan kristiñautzea Biz-kai'ra. Monastegien artean jarri bear da Ziortza. Au da bakarra gotzaiñaren menpean dagona.

Ortik etorri dala gure kristiñautzea agertzeko, emen daukagu abadea izena eleizako arduradunari emotea eta auzo guztietan aurkitzen doguzan ermitak eta lei-kaide-etxe txikiak, izenak berak diñoan lez, badagoz VIII gizaldiko arrilanduak.

Olazar'tar Martin'ek

36'ko guda Bizkaia'n

36'ko gudaren azkena gutzat Bizkaia'n izan zan.

Franco'tarrak Madrid'era sartu nai izan eben baiña ezin. Orduan Bizkai'ko ekiñaldia asi eben: 37'ko martiaren azkene-tan.

Egazkin eta kañoi guztiak onako batu ebezan, Alema-nia'ko Kondor lejioa eta italiarrak barru zirala: 60.000 solda-du (Gipuzkoa'n 7.000 baiño ez ziran ibilli), 200 kañoi, eun egazkin, eta euskaldunen aldetik 40.000 gudari, eun kañoi baiño gitxiago eta egazkin talde bi makalak. Ori dana geure begiakaz ikusia da eta gogoan daukagu "abuelo" eritxon egaz-kin zarra. Otxandio-ondoan eukin egazkin-zelaia.

Arin azpiratu ginduezan olako ezbardintasuna egoalako.

Franco Errogoiti-ganeko Metxika'n egoan dana zuzentzen.

Geuk entzunak dira Bilbao-gaiñera jauzi ziran lerkaien danbadak! Gauza larria da guda! Gero Bilbao'tik etxera oiñez.

1937'ko bagillean artu eben Sollube, dana sutan, eta Mun-gialdea igaro-ondoren, Burdiñezko Garrikoka ekiñaldi bitan eskuratu eben: maiatzaren 25'ean eta bagillaren 19'an, errie-tako eleizak apurtu ondoren: Mungia, Gatika, Maruri eta Gamiz'ko torrea. Or egin eban etoikeria Goikoetxea asmatzai-lleak planoak beste aldera eroanda, baina ez egoan orren bear-izanik.

Gure guda Santoña'n amaitu zan. Italiarrakaz ituna egin eban EAJ'k baiña euskaldunak iges joiazala Franco'k atzetra ekarteko agindua emon eban eta gure gudariak espetxeetako bizi-modu larria izan eben.

Olazar'tar Martin'ek